

Erakusketa ibiltariaren

AURKEZPENA



FABRICANDO MUJERES

¿CONSUMIMOS VIOLENCIA?

*Indarkeria kontsumitzen dugu?
azterlanean eta hori inspirazio hartuta egindako
Fabricando Mujeres dokuwebean oinarrituta*

Proposatzaileak:

Serem **alte
kio**



aurkibidea

3. orrialdea
6. orrialdea
10. orrialdea
14. orrialdea
16. orrialdea

1. Testuingurua
2. Erakusketa
3. Ikastaro didaktiko gehigarriak
4. Fitxa teknikoa
5. Harremanetarako kontaktua



1. Testuingurua

Erakusketa hau SETEM Hego Haizeak eta Altekio kooperatibak diseinatu dute. Helburua [Indarkeria kontsumitzen dugu? ikerketaren I., II. eta III. txostenetan sortutako ezagutza gizarteratzea](#) da. Ekoizpen eta kontsumo esferatik eragindako indarkeria matxisten inguruan kontzientziatzeko eta horiek ezabatzeko helburu orokorraren inguruan daude kokatuta.

Proposamena **erakusketa ibiltaria** da eta aipatutako txostenetatik eratorritako [Fabricando Mujeres dokumental proiektu interaktiboan](#) jada definitutako oinarri estetiko eta kontzeptuala du abiapuntu. Erakusketa, bere horretan, **tresna pedagogiko gisa** kontzeptualizatu da; hau da, sentsibilizatzeko eta ahalduntzeko tresnak eskaintzeko asmoa du, eta egungo kontsumo eredurako alternatibak kolektiboki eraikitzea esploratzeko eta horretan parte hartzeko gonbita ere bada.

Era berean, erakusketak **hainbat ikastaro osagarri** dauzka, publiko desberdinari zuzenduta.



Indarkeria kontsumitzen dugu? azterlana

SETEM Hego Haizea 2016tik dabil «Indarkeria kontsumitzen dugu?» galdera planteatzen, ohiko ekoizpen eta kontsumo ereduaren eta indarkeria matxisten artean loturarik dagoen egiaztatzeko.

Kontsumoan indarkeria horiek daudela aurkitu dugu, eta hainbeste naturalizatu dira, non gizartearen zati handienarentzat ikusezin bihurtu diren. Are gehiago, barneratu egin dira eta normaltzat hartzen dira. *Indarkeria kontsumitzen dugu?* azterlanean baieztatu dugu; gaur egun hiru fase ditu, eta gida didaktiko bat eta zenbait material barne hartzen ditu (ikusi www.fabricandomujeres.org webgunean).

Indarkeria kontsumitzen dugu? I. Fasea argitalpenean (2016) marko teorikoa eraiki zen eta indarkeria matxisten eta kontsumoaren arteko lotura aztertu zen zenbait eremutan: etxeko produktuak, estetika, elikagaiak eta hiri-mugikortasuna. Analisiaren emaitzek islatzen dute kontsumoan indarkeria matxistak naturalizatuta eta barneratuta daudela eta normaltzat jotzen direla gure gizartean. Lan hori kontsumo arduratsuan aritzen diren erakundeen eta erakunde feministen artean ezagutza sortzeko eta ikasteko prozesu kolektiboaren emaitza da.

Prozesu horren emaitza ere izan da *Indarkeria kontsumitzen dugu? Indarkeria matxistarik gabeko kontsumorako hausnarketa-gida didaktikoa*; galdera-erantzun sorta baten bitartez, berdintasuna sortzen duten kontsumo aukerak sortzeko klabe batzuk eskaintzen ditu.



Azterlanaren zabalpenean, *Indarkeria kontsumitzen dugu? II. Fasea* dokumentuan (2020), aztertutako kontsumo-arloak telefono mugikorrek eta aplikazioak, fikzio-telesailak eta etxeko energia-kontsumoa izan ziren. *Indarkeria kontsumitzen dugu? III. Fasea* txostena (2023), berriz, aisialdira bideratuta dago.

Fabricando Mujeres

Azterlanen emaitzak modu erraz eta arinean zabaltzeko, *Fabricando Mujeres dokumentala* (2018) egin genuen. Lanaren protagonista Maite da (Itziar Aizpururen azalean), eta bi mundu azaltzen ditu: alde batetik, Fabrikak kontsumo kapitalistak eta indarkeria matxistak elkarri eskua ematen dioten eta haien arauak jarraitu behar dituzten emakumeak ekoizten dituen mundu hori azaltzen du; horren aurrean, eredu alternatiboei lekua egiten dien Maiteren Lantegia dago. Proiektuan Maitek hamaika laguntzaile ditu. Proiektuak bigarren fase bat dauka: *Fabricando Mujeres 2.0* (2020), eta *fabricandomujeres.org* **plataforma parte-hartzailea**. Horren bidez, kontsumoan aurkitzen dituzun indarkeria-egoerak salatu ditzakezu edo aukera eraldatzaileak ezagutu.



1. Testuingurua






2. Erakusketa

Erakusketatik igarotzea **aldaketa-ibilbidea** da. Horretarako, erakusketaren espazioa **hiru uneko ibilbide batean** antolatu dugu; eraldaketa-prozesuko planoek (edo mailek) azaltzen dituzten metaforen bidez, (1) kontsumoaren bitartez jasaten ditugun indarkerien jakitun egiten gara [EMAKUMEEN FABRIKako eszenatokian irudikatua], (2) gero testigantzak entzuten ditugu eta gure esperientzia propioekin lotura ezartzen dugu [AUZOKIDEEN PATIOko eszenatokian irudikatua], eta, (3) azkenik, kolektiboki zerbait egitea erabakitzen dugu [MAITEREN LANTEGIko eszenatokian irudikatua].

Aurrekontua: erakusketaren kostua bere **garraioaren** araberakoa da + **50€** bere lagapenagatik. Garapenerako Euskal Agentziak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiek eta Donostiako Udalak finantzatu dute erakusketaren sorkuntza.





I. fasea: Fabrika

Bakarkako hausnarketarako unea. Espazio honetan proiektura lehenengoz hurbiltzen gara, bideoaren zati baten, testuingurua azaltzen duten testu-konposizioen, eta materialak eta txostenak dituzten QRen bitartez. Galtung-en «indarkeriaren hirukiaren» marko teorikoari ere erreferentzia egiten zaio.





II. fasea: Auzokideen patioa



Entzuteko unea. Indar kolektibora iragateko deia. Auzokideen patioaren metaforaren bitartez, postal gisa hainbat testigantza aurkituko ditugu «zintzilik». «Atzeko» aldean, izpi ultramoreen (UV) linterna baten laguntzaz, lehen ikusten ez genituen alderdiak (indarkeriak) azalduko dira, «betaurreko moreak» jantziko bagenitu bezala.





III. fasea: Maiteren lantegia

Alternatiben laborategirako unea, jokoaren arauak aldatzeko. Maiteren lantegiaren bideorako sarrera estekatuta dago, hiru botereen inguruan hitz egiten da eta erakusketan zuzenean parte hartzeko gonbita egiten da, *collageak* zuzenean sortuz nork bere burua adierazteko. Gardenki-sorta konbinatu eta modu askean sortutako collageak proiektatu daitezke panelarekin batera dagoen erretroproiektorearen bitartez; hala, sortutakoa erakusketaren parte izango da, iragankorra izan arren. Era berean, espazioak online ere oihartzuna du, webgune interaktiboko «alternatibak» atalarekin lotura duen QRaren bidez.





3. Ikastaro didaktiko gehigarriak

Erakusketa didaktikoa denez, hainbat formakuntza-ikastaro gehigarri proposatzen dira: horietako bi «indarkeria kontsumitzen dugu?» galderak planteatzen duen hausnarketaren eta kontzientzia hartzearen ingurukoa; eta beste bi erakusketan bertan proposatzen den aldaketa-ibilbidearekin zuzenean lotuta, osagarri gisa, erakusketako baliabideetatik abiatuta eta horiek optimizatuz.





I. Bisita gidatua

Murgildu zaitez indarkeria matxistak iraunarazten dituzten gure kontsumo-erabakiak aztertzeko ibilbide paregabea. SETEM Hego Haizearen lantaldeak lagunduta, hiru gune interaktibotan zehar gidatuko zaitugu: «Emakumeen Fabrika», «Auzokideen Patioa» eta «Maiteren Lantegia». Bertan, kontsumoak estereotipoak nola fabrikatzen dituen eta alternatiba justuagoak nola eraiki ditzakegun ikusiko duzu.

Helburu orokorra: kontsumoan ematen diren indarkeriak modu bizigarri eta kolektiboan aztertzea, horien inguruan hausnartuz, eta indarkeria matxistarik gabeko kontsumo bidezkoago eta arduratsuago baterako aldaketaren parte izatea.

Nori zuzenduta: kontsumoaren arloan emakumeen eta pertsona ez-normatiboenganako indarkerien gaia esploratu nahi duten pertsonei.

Formatua: aurrez aurrekoa.

Iraupena: ordubete eta 30 minutu, gutxi gorabehera.

Aurrekontua: 120€ + joan-etorrien gastuak.

II. Docuforum

Dokumentalaren proiektzioa eta, ondoren, solasaldia. SETEM Hego Haizea-tik elkarrizketa dinamiko bat errazten dugu, dokumentalaren proiektzioaren ostean sortzen diren gogoeta eta solasaldia bultzatuz. *Fabricando Mujeres 1.0* zein *Fabricando Mujeres 2.0* lanekin egin daiteke.

Helburu orokorra: kontsumoaren testuinguruan, gizartean beren nortasuna eta eginkizuna eraikitzeko, emakumeek eta pertsona ez-normatiboek dituzten errealitateak eta erronkak aztertzea eta ikusaraztea. Testigantzen, ikerketen eta hausnarketan bidez, berdintasunari eta justiziar buruzko elkarrizketa sortu nahi da.

Nori zuzenduta: kontsumoaren arloan emakumeen eta pertsona ez-normatiboenganako indarkerien gaia esploratu nahi duten pertsonei.

Formatua: aurrez aurrekoa.

Iraupena: 2 ordu.

Aurrekontua: 150€ + joan-etorrien gastuak.



III. Indarkeria matxistak eta kontsumoa

SETEM Hego Haizeak diseinatutako eta gidatutako ikastaro honetan, azterlanak zenbait arlotan lortutako emaitzak (estetika, elikadura, mugikortasuna, fikzio-telesailak, mugikorren teknologia, energia, aisialdia) hartzen dira abiapuntutzat, modu sortzailean eta bizipenetatik abiatuta, indarkeriak nola zeharkatzen gaituen eta bestelako kontsumo moduak nola eraiki ditzakegun aztertzeke.

Ikastaroaren helburu orokorra: modu sortzailean eta bizipenetatik abiatuta, indarkeriak nola zeharkatzen gaituen eta bestelako kontsumo moduak nola eraiki ditzakegun kolektiboki aztertzea eta horren inguruan hausnartzea da.

Eduki orokorrak:

- ◆ Indarkeria matxistak.
- ◆ Kapitala-bizitza gatazka.
- ◆ Kontsumo Kritiko Arduratsu eta Eraldatzailearen (KKAE).
- ◆ Alternatibak eta kontsumoa, hiru boteretatik.

Formakuntza amaitzean, parte-hartzaileek:

- ◆ Indarkeria matxisten eta KKAE feministaren inguruan gehiago ikasi izango dute.
- ◆ Indarkeria matxistek bizitzetan eta gorputzetan nola eragiten duten eta nola zeharkatzen dituzten ulertu izango dute.
- ◆ Indarkeria matxisten eta arlo desberdinetako (estetika, energia, mugikortasuna, mugikorrek aplikazioak, fikzio-telesailak, aisialdia) kontsumo kapitalistaren arteko loturen inguruan hausnartu izango dute.
- ◆ Egunerokoan indarkeria matxistarik gabeko kontsumoa izateko zer egin daitekeen aurkitu izango dute.

Zertarako: emakumeentzako sentsibilizazio eta ahalduntze espazioa izateko (begirada trans-inklusiboarekin).

Formatu: aurrez aurrekoa.

Iraupena: ikastaroaren iraupena moldagarria da; 2 ordukoa, 3 ordukoa edo 6 ordukoa.

Aurrekontua: prezioa iraupenaren arabera da. 660€ (3 ordu) + joan-etorrien gastuak.



IV. Aldaketa-ibilbidea emakumeen fabrikaren aurrean

Artean, hezkuntzan eta prozesuak errazten espezializatuta dauden Altekioko kideek diseinatu dute ikastaro hau, eta SETEM Hego Haizeak dinamizatzen du. Bertan, esperientzia eta sorkuntzan oinarritutako formakuntza-espazioa sortzen da, erakusketan bertan proposatutako aldaketa-ibilbidetik artikulatua. Hortik abiatuta, eta erakusketako elementu eta baliabideetan oinarrituta, fase desberdinak aztertzen dituen proposamen-didaktikoa egiten da eta bakoitzaren edukietara hurbiltzea sustatzen da, gorputzaren eta emozioen bidezko esperientziarekin batera:

- ◆ Aktibazio fasea: erakusketara sartzea.
- ◆ I. blokea: kontsumoaren bidezko emakumeen eta pertsona ez-normatiboen aurkako indarkeriaren inguruko sormen lana.
- ◆ II. blokea: soinu-testigantzen lantegia.
- ◆ III. blokea: alternatiba kolektiboen sormen artistikorako lantegia.
- ◆ Itxiera eta ondorioak.

Egitura horri esker, parte-hartzaileak indibidualki igaro daitezke kontsumo-arloko indarkeria matxisten arazoaren inguruko kontzientzia eta hausnarketatik abiatuta, konponbide eraldatzaileak eraikitze proposamena kolektiboki bideratuz.

Ikastaroaren helburu orokorra: *Fabricando Mujeres* erakusketako edukien inguruko esperientzia kontzeptuala sortzea, hausnarketa, gaiarekiko lotura emozionala eta alternatibak bilatzea sustatzeko.

Eduki orokorrak:

- ◆ Indarkeria kontsumitzen dugu? Gure kontsumoaren bidez indarkeria sustatzen dugu?
- ◆ Galtung-en indarkeriaren hirukia.
- ◆ Indarkeria ikusezinak.
- ◆ Emakumeen fabrika: estereotipoak, eta kontsumo eta ekoizpen sistema. Kausak eta ondorioak.
- ◆ Entzutearen garrantzia: esperientziak eta testigantzak.
- ◆ Hiru botereak: aldaketa pertsonalaren boterea, indar kolektiboaren boterea eta joko-arauak aldatzeko boterea.
- ◆ Norbanakoen alternatibak eta alternatiba kolektiboak.

Formakuntza amaitzean, parte-hartzaileek:

- ◆ Emakumeen eta pertsona ez-normatiboen aurkako indarkeria eta kontsumoaren arteko lotura ulertuko dute.
- ◆ Gaiaren inguruko esperientzia eta sentimendu indibidualak eta kolektiboak partekatuko dituzte.
- ◆ Kontsumo kritiko, arduratsu, eraldatzaile eta feministarako alternatiba indibidual eta kolektiboak eraikiko dituzte.

Nori zuzenduta: emakumeen eta pertsona ez-normatiboen aurkako indarkeria aztertzen interesa duten kolektiboak, elkarteei eta norbanakoei.

Formatua: aurrez aurrekoa.

Iraupena: 2 ordu eta 30 minutu.

Aurrekontua: 660€ + joan-etorrien gastuak.



4. Fitxa teknikoa

Piezak eta neurriak:

- ◆ **Fabrika:** PUZZLE GISA EBAKITAKO 6 PIEZA. Sei zatitan trokelatutako modulua, gutxi gorabehera 480x300 cm:
 - a. 188x169 cm
 - b. 188x169 cm
 - c. 188x179 cm
 - d. 120x169 cm
 - e. 111x145 cm
 - f. 169x110 cm
- ◆ + Trokelatutako etiketa bat: «Indarkeria kontsumitzen dugu?», 89x178 cm..
- ◆ **Auzokideen patioa:** 4 PIEZA. Lau modulu, bakoitza 198x158 cm-koa.
 - ◆ 28 postal (Din A5).
 - ◆ Esekitzeko soka.
 - ◆ Postalak esekitokian zintzilikatzeko pintzak.
- ◆ **Lantegia:** PUZZLE GISA EBAKITAKO 6 PIEZA. Gutxi gorabehera 480x300 cm-ko modulua, sei zatitan trokelatuta:
 - a. 190x127 cm
 - b. 190x132 cm
 - c. 190x171 cm
 - d. 123x168 cm
 - e. 121x170 cm
 - f. 121x170 cm
- ◆ ERRETROPROIEKTORE BAT
- ◆ 40 GARDENKI (azetato Din A6) erretroproiektorerako.
- ◆ 14 IDULKI, moztuta, ilargi-erdiko formarekin, moduluak altxatzeko.
- ◆ Fabrika eta lantegiko ertzeetan jarriko diren PVC listoiak, bertikalki eusteko.
- ◆ Pintza itxurako metakrilato pieza txikiak, buruan edo beharrezko beste tokietan loturak segurtatzeko.
- ◆ Material guztiaren gutxi gorabeherako pisua: 70 kg.



Zehaztapen teknikoak:

- ◆ Erakusketaren **muntaia oso erraza** da, elementu guztiek euskarri propioa baitute, zutik iraun dezaten. Beraz, ez da beharrezkoa paretetatik eta sabaitik ezer zintzilikatzea.
- ◆ Hala ere, kontuan izan behar da erakusketak **erretroproiektore bat** duela, eta entxufatuta egon beharko duela, beraz, **argi-hartune bat** beharko da hurbil.
- ◆ Erakusketa muntatzeko gutxi gorabehera **ordubete eta 30 minutu** behar dira.
- ◆ Erakusketak **ez du zaintzarik** edukiko.
- ◆ Ahal den heinean, erakusketa **egutegiko bi astez** erakustea gomendatzen da, edo **gutxienez astebetez**.



5. Harremanetarako kontaktua

Erakusketa-proposamena interesgarria iruditzen bazaizue, jarri harremanetan gure lantaldearekin:

♦ **Emaillez:**

Araba - vitoria-gasteiz@setem.org

Bizkaia - bilbao@setem.org

Gipuzkoa - donostia@setem.org

♦ **Telefono bidez:**

Araba - 945 120 746

Bizkaia - 944 793 664

Gipuzkoa - 943 359 592



Proiektu hau eta bertatik datozen baliabide guztiak honako hauen finantzaketari esker egin dira:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udala.



Aurkezpena

Esperientzia-zikloa

FABRICANDO
MUJERES

Proposatzaileak:

Setem alte
kio